

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 205/2008 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetu dituenak**

**(BAO Urtarrilaren 7koa)**

**26. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharra eta hura egiaztatze modua.**

1. Pertsona fisiko eta juridikoen eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren zergapekoen identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko harremanetarako edo zerga ondoreak sortzen dituztenetarako.

Ondokoak dira, besteak beste:

- a) Jabetza horizontalaren araubideko jabeen erkidegoak.
- b) Pentsio funtsak, inbertsio funtsak eta kapital-arriskuko funtsak.
- c) Interes ekonomikoko elkartzak eta enpresen aldi baterako batasunak.
- d) Testamentu-ahalordea baliatu zain dauden jaraunspenak, zergen arloko harremanak edo zerga ondoreak sortzen dituzten harremanak dituztenak.

2. Identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dutenek ondokoak erabil ditzakete badaukatela egiaztatze moduak: Zerga Administrazioak emandako agiria, nortasun agiri nazionala eta atzeritarraren identifikazio zenbakiaren agiri ofiziala.

3. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa betetzeak ez du salbutzen zerga jakin batzuei buruzko araudietan ezarritako identifikazio kodeak edo gakoak eduki beharretik.